

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



■ HERNANI OSIÑAGA

Bertso afarian 35 lagun elkartu ziren

Pasa den larunbatean Osiñagako bertso afaria egin zen festen hasierako ekitaldi bezala. 35 lagun elkartu ziren afarian eta giro ezin hobean egon ziren. Etzi hasiko dira festak auzoan, Elorrabin. ■

■ HERNANI HERNANI ERABAKI

Hernani Erabaki prozesua abiatu du Udalak

Gaurtik ekainaren 17ra bitarte, hernaniarrek, bakarka nahiz taldean, proposamenak egiteko aukera izango du. Beti ere, proposamenok Talde Eragileak zehaztutako baldintzak bete beharko dituzte.

ERABAKI Hernani Decide 2020 aurrekontu parte-hartzaileen prozesua martxan da aurten ere. Seigarrenez, hernaniarrek erabakiko dute 2020ko udal aurrekontuaren 500.000 euro zertan inbertitu nahi dituzten. Horretarako, urtero bezala, proposamenak egin, horiek eztabaidatu eta erabakitzeke aukera izango dute herritarrek. Dagoeneko 2.500.000 euro erabaki dituzte herritarrek aurrekontu parte-hartzailearen bidez.

Talde Eragilea sei herritarrek osatzen dute, Siadecoren gidaritzapean

2014an aurrekontu parte-hartzaileen prozesua hasi zenetik, herritarrek osatutako Talde Eragilea izan da prozesuaren oinarriak jarri dituen, eta hala izango da aurten ere. Oraingo honetan, Siadeco Ikerketa Aplikatuaren gidaritzapean, sei herritarrek osatzen dute: hiru norbanakok, herriko talde bateko ordezkari batek, eta auzo elkarteetako bi ordezkariak.

Prozesua, lau fasetan

Lau fase izango ditu aurten ere Hernani Erabakik. Lehenengo fasean, proposamenak egingo dira; gaur hasi eta ekainaren 17ra bitarte. Bigarren fasean, proposamenak lehenetsiko dira; uztailearen 8tik 11ra bitarte. Hirugarren fasean, proiektuen balorazio teknikoak egingo da; uztailearen 18tik irailaren 20ra. Eta laugarren fasean, bozkatu eta erabakiko dira, urriaren 14tik azaroaren 15era bitarte.

Lehenengo fasea, gaurtik

Hain zuzen, lehenengo fasea da orain abiatuko dena. Gaurtik ekainaren 17ra bitarte, hernaniar orok, bakarka nahiz



Udaletxean egin zen aurtengo Erabaki Hernaniaren aurkezpena.

taldean, proposamenak egiteko aukera izango du. Beti ere, proposamenok Talde Eragileak zehaztutako ondorengo baldintzak bete beharko dituzte: proposamen bakoitzaren aurrekontua 125.000 eurokoa izango da, gehienez; eta herritar bakoitzak, gehienez ere, 5 proposamen egin ditzake.

Proposamenak egiteko bideak, aurreko urtetakoak

Hiru bide izango dira proposamenak egiteko. Batetik, bilera irekiak egingo dituzte, auzoetan, gaurtik hasita.

Postontzien bidez ere egin daitezke: Hernaniarrek etxean jasoko dituzten diptikoak bete, eta udal eraikinetan (Biteri Kultur Etxean, Udaletxean, Kiroldegian, Goiz Eguzkin, Institutuan, Plaza Feministan, Gabriel Zelaian, Sandiusterrin eta Udal Euskaltegian) eta auzo elkarteetan lokaletan jarriko diren postontzietan sartu ahal

izango dira.

Eta internet bidez ere bai: erabaki.hernani.eus webgunean dagoen inprimakia bete eta bidalita.

Aurten ere gaztetxoek aukera

Iaz aurrenekoz egin zuten moduan, aurten ere, 8 eta 16 urte bitarteko gaztetxoek aukera izango dute aurrekontu parte-hartzaileen prozesuan parte-hartzeko. Eskola Agenda 21 proiektuaren bidez bideratuko da; proiektu horretan landutako gaiaren bueltan egindako proposamenak txertatuko dira prozesuan, eta ondoren, bozkatze-fasean parte hartuko dute, ikastetxeen bidez.

'Herriari bizitza ematea', helburu

Horrez gain, Talde Eragilea hasi da dagoeneko lehenestefasea prestatzen. Hain zuzen ere, *Herriari bizitza ematea* izango da aurtengo helburua,

LEHENENGO FASEA: Auzo aukerak

- **Gaur:** Karabelen, 19:00etan.
- **Bihar:** Lizeagan, 19:30ean.
- **Ekainak 3:** Zikuñagan, 19:30etan.
- **Ekainak 5:** Portun, 19:00etan.
- **Ekainak 6:** Antziolan, 19:00etan.
- **Ekainak 7:** Latsunbeberri, 19:30ean.
- **Ekainak 10:** Kaxkoan, 19:00etan.
- **Ekainak 12:** Etxeberri-Florian, 19:00etan.

*Saiok auzo elkarteetan lokaletan izango dira, Kaxkokoa izan ezik, udaletxean egingo baita.

Talde Eragileak hala erabakita. Hori horrela, prozesu honetan dinamika kulturalak, tokiko jardura ekonomikoak (merkataritza, zerbitzuak, enplegua), herritarren arteko harremana eta topaketa, eta herri ondarea (kulturala, historikoa, naturala...) sustatzen duten proposamenak egiteko gonbitea luzatzen diete herritarrei. ■

■ HERNANI INGURUMENA

Isuririk ez, makina hondatuta

Astelehen goizean isuririk ez da izan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak argitu duenez. Dioenez, hondatu egin da airearen kalitatea neurtzen duen makina, eta horregatik eman zituen ezohiko kopuru horiek. Gobernuaren arabera, ezohiko kopuru horiek sumatu zituztenean, Hernanira joan ziren saileko teknikariak, eta ohartu ziren makinaren akatsa zela. Konpontzen ari dira. ■

■ HERNANI ERAKUSKETA

Ikasleen lanak ikusgai, Biterin

Hernaniko ikasleek erakusketa bat jarri dute aste honetan Biteriko gelan. Eskola Agenda 21 proiektuan kokatzen da kontsumo jasangarriaren barruan eta bihar arte egongo da ikusgai. ■

■ HERNANI TXAKOLINA

Txakolin eguna, Santa Barbaran

Etzi, larunbatean, 12:30etan Txakolin eguna antolatu da Santa Barbara elkartearen. Txakolina eta pintxoa 5 euroan egongo da eta Gaintza, Ulacia, Rezabal eta Ameztoti upategien txakolina probatu daitezke. ■

■ HERNANI XALAPARTA

Mus finalerdiak gaur, elkartean

Xalaparta elkarteak Mus Txapelketako finalerdiak gaur jokatuko dira elkartean bertan. Txema-Goyo/Otegi-Bixente eta Peli-Ramón/J.J. Bestetik, elkarrekin itxita egongo da ekainaren 4an eta 5ean sukaldeko konponketak direla-eta. ■

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

Allianz ASEGURUAK
bizitza -
latripuak -
ibigailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar
agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

mikel armendariz
proiektu eta instalazio
elektrikoak
Tel. 649 846 422
HERNANI

Tripontzi jatetxea
PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK
ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

GAUR Udaberriko eguraldi eguzkitsua eta epela. Goizean goiz laino batzuk ikusiko dira ipar partean eta bamealdeko ballaretan behe-lainoa sor daiteke, baina berehala desagertuko dira. **Min.11° / Max.20°**

BIHAR Zeruak oskarbiari utsiko dio eta eguzkiarekin temperaturak beste koska bat egingo du gora. Kostaldean brisa alkatuko denez, temperatura ez da horrenbeste igoko. **Min.13° / Max.23°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI AGENDA 21



Hernaniko ikasleek eginiko lana aurkeztu zuten Pleno aretoan.

Kontsumo jasangarria nola bideratu aztertu da ikastetxeetan

Hernaniko Eskola Agenda 21 proiektua aurkeztu dute Pleno aretoan herriko ikasleek. Dagoeneko hamabost urte bete ditu programak.

ESKOLA Agenda 21 programak aurten 15 urte bete ditu, eta atzo Pleno aretoan aurkeztu zituzten 2018-2019 ikasturtean, Hernaniko ikasleek, egin-dako lanak. Aurretik, Hernani BHI eta Lanbide Heziketako zuzendariak, Aintzane Ibarzabal eta Ainitze Blancok, akordioa sinatu zuten Udalarekin, Luis Intxauspe alkatearekin, aurrerantzean programan sartzeko. Luis Intxauspe alkateak ere agur berezi bat jaso zuen denen partetik, azkenengo parte hartzea izan zuen eta alkate bezala.

Aurten landutako lana kontsumo jasangarriarena izan da. Aurreko ikasturtearen jarraipena eginez, aztertu eta landu dute nola kontsumitu daitekeen hondakin gutxiago sortzeko. Lehenik, gaia ezagutzeko sentsibilizazio jar-

duerak burutu dituzte, eta ondoren, eskolako eta herriko diganosia egiteko lanetan sartu dira.

Kontsumo zuzena

Haur Hezkuntzako ikasleek inguruan dutena ezagutu dute. Lehenengo eta bigarren mailakoek, kontsumo zuzena aztertzen aritu dira: elikadura eta jostailuak. Hirugarren eta laugarren mailakoek, etxeetako ur kontsumo ohiturak aztertu dituzte. Eta bosgarren eta seigarren mailakoek, etxe-etako erosketa ohiturak aztertu dituzte.

Kontsumo ohiturak

Bigarren hezkuntzako ikasleen artean DBH lekoek kontsumo ohiturak aztertu dituzte. DBH 2koek publikitate aztertu dute, egia ala gezurra den eta

gehiegizko kontsumora eramaten al duen jendea.

DBH 3koek ura edateko baino zerbait gehiagorako dela, eta erreka garbiketarako burutze-koak dira. DBH 4koek kontsumo teknologikoa landu dute eta Batxilergoek kontsumo jasangarria definitzeko lanean aritu dira.

Errugbiko baloi itxurako zakarrontzia geltokietan

Agenda 21 programaren azterketarekin batera, Udalaren eskaerari kasu eginez, gai bat landu dute Gizarte Berrikuntza Lanbide Heziketako ikasleekin. Autobus geltokietan zakarrontzien beharra zegoela ikusi zen galdetegi bat eginez. Erantzuna emateko, errugbiko baloi baten itxurako zakarrontzia garatu dute, Hernaniko identitatea mantenduz. ||

HERNANI OZENKI ABESBATZA ETA DOINU-ZALE



Milagrosan eman zen lehenengo urteurren kontzertua.

2garren kontzertua etzi, Biterin

Doinu-Zale musika eskolaren eta Ozenki abesbatzaren 25garren urteurrena dela-eta, lehenengo kontzertu berezia eskaini zuten pasa den asteburuan, Milagrosan. Etzi, larunbatean, bigarren kontzertu berezia eskainiko dute Ozenki, Kantuz, Goizuetako Umore Ona eta Doinu-Zale akordeoi taldeek, 19:45etan, Biterin. ||

ASTIGARRAGA JAI BATZORDEA

Santio jaietako batzordea, gaur

Santio Jaietako batzordea gaur elkartuko da, 14:30etan kultur etxean. Bertan, festen antolaketaren inguruan jardungo dira. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† MARITXU DORRONSORO IRUIN
(Maritxu Polo, Pepe Martinezen alarguna)
Atzo hil zen, 102 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
- Goian Bego -
Seme-alabak: María José eta Patxi Gorriti, Jesus Mari eta Txaro Saez de Jauregui; bilobak: Aitor, Gorka, Yosu eta Unai; birloba: Maddi; zaintzailea: Elenita; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **BIHAR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2019ko maiatzaren 30ean
OHARRA: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da bihar eguerdiko 12:00ak arte.

III. urteurrena
Erika Macicior Marin
Ez utzi malkorik
ezpainetara iristen,
Irri hori lausotzen duen
zauririk zabalzen.
AITA, AMA ETA AIORA
Hernanin, 2019ko maiatzaren 30ean

III. URTEURRENA
Erika Macicior Marin
Zure irrifarrarekin geldituko gera,
egun ilunak koloreztatuko.
**OIHANA, NEREA, ESTHER,
KORO, LAURA, MAIDER, AINHOA ETA FELI**
Hernanin, 2019ko maiatzaren 30ean

III. URTEURRENA
Erika Macicior Marin
Ez zaitugu ahaztuko.
ZIKUPEÑA
Hernanin, 2019ko maiatzaren 30ean

IRAGARKI MERKEAK

Bikote gazteak 2-3 gelako pisua alokatuko luke Hernani edo inguruan. Epe luzerako.
Deitu: 688 774 068
LANDANET enpresak **KOMERTZIALAK** behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilerio eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv info@landanet.net** edo deitu **943 31 86 06**
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)